

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2855

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «305/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, Turismo-gidaritzako, -informazioko eta -laguntzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira dekretu honetan: 305/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, Turismo-gidaritzako, -informazioko eta -laguntzako goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena, zein 2011ko urtarrilaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen, 11. zenbakian. Bada, jarraian zuzendu egiten dira hutsak:

– 2011/217 (94/101) orrialdearen V. eranskinean, euskarazko bertsioan, honela dio:

Taldean gidaritza eta laguntza	0383 Turismo-helmugak 0384 Turismo-baliabideak
--------------------------------	---

Baina honela esan behar du:

Taldean gidaritza eta laguntza	0386 Turismo-gidaritzako eta laguntzako prozesuak 0172 Protokoloa eta harreman publikoak
--------------------------------	---

– 2011/217 (100/101) orrialdearen V. eranskinean, gaztelaniazko bertsioan, honela dio:

Asistencia y guía de grupos	0383 Destinos turísticos 0384 Recursos turísticos
-----------------------------	--

Baina honela esan behar du:

Asistencia y guía de grupos	0386 Procesos de guía y asistencia turística 0172 Protocolo y relaciones públicas
-----------------------------	--